



Euskadiko Lehendakaria
El Lehendakari de Euskadi

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abendua

Munduko euskaldunok, lagun agurgarriok,

Eusko Jaurlaritza eratu berri denean idazten dizkizuet lerro hauek.

Urtearen hasieran –orain urtea amaitzear bagaude ere– ekin zion Donostiak 2016ko Europako Kultur Hiriburua izateari. Aukera paregabea izan da gure herrialdearentzat, berriro aldarrikatzeko ezinbestekoa dela ezberdinen arteko zubiak egitea Europako eta munduko elkarbizitzaren oinarri izan daitezen; izan ere, osoko elkarreaginerako bi gune dira horiek, errespetuaren eta irekieraren balioetatik eraiki behar direnak.

Aurten beste ospakizun bat ere izan da: laurogei urte bete dira José Antonio Aguirre Lehendakariak zuzendutako lehen Eusko Jaurlaritza eratu zela. Gogora ekarri dugu, halaber, 75 urte bete direla Berlinetik, Montevideon egonaldi bat egin ondoren, New Yorkera eraman zuen erbestealdiari ekin zionetik. Euskal komunitate eta euskal etxe aktibo ugari daude orain hiru hiri horietan.

Aguirre Lehendakariak urte garrantzitsu eta oso zailei egin behar izan zien aurre. Gerra Zibila bete bete zegoela eratu zuen Eusko Jaurlaritza, Bigarren Mundu Gerra hasi aurretik. Garai hartan amets hutsa zirudien printzipio demokratikoei eta iritziei buruzko eztabaida zibilizatuari irauaraztea. Aguirre eta haren gobernuak ameslari horietakoa izan zen eta historiak arrazoia eman dio.

Oroitzapen hori gure konpromisoa da gaur. Euskal Herriaren garrari piztuta irauaraztea da omenaldirik onena gure arbasoentzat. Aukera dugu elkarrekin lanean jarraitzeko zenbait idealen alde: demokraziaren, bakearen, elkarriketaren, integrazioaren eta aurrerapenaren alde gure gizartearen eta munduan, hain zuzen. Gure jardura zabaltzen jarraitzeko ekonomian, kulturen, gizartearen eta elkartzunean.

Gaur espiritu horri eta 2020. urterako lehentasunen egitasmoari eusten diegu. Eusko Jaurlaritzan oso erronka zailak ezarri dizkiogu geure buruari:

- Giza garapena, gizarteratzea eta berdintasuna sustatzea eta kalitatezko gizarte zerbitzuak bermatzea guztientzat.
- Enplegu gehiago eta hobea sortzea, ekonomia suspertzea eta iraunkortasuna.
- Bizikidetzan eta giza eskubideetan aurrera egitea, Euskadin bakea berretsita, gizartearen benetako elkartzeko bat bilbatzeko.
- Gure autogobernuak eguneratzea, printzipio demokratikoa eta legezotasun printzipioa elkartuz, Euskadi Nazioa dela onartuko duen Estatus Politiko berri bat erdiesteko.

Beste hainbat herrialdeetan bezala, garrantzi handiko erronkei egin behar diegu aurre. Badakigu horiek gainditzeko ahalegina gogotik eta konpromiso handia beharko direla, baita euskal gizarte osoaren partaidetza. Halaber, beste errealitate batzuk kontuan hartzeko jarrera irekia ere beharko da. Gure herrialdean euskaldunok beti jakin izan dugu bateratzen geure balioak eta gure nortasuna munduari irekitako espiritu batekin. Gaur inoiz baino gehiago indartu behar ditugu gure presentzia eta partaidetza nazioarteko agertokian.

Oraingo garai berri honetan, berretsi nahi dizuet lanean jarraituko dugula kanpoan den euskal komunitateak sendotzeko eta are gehiago estutzeko komunitate horretako kideak zaretenon eta euskal erakundearen arteko harremanak. Ildo horretan, lanabes berri bat eskaini nahi dizuegu: Basque Global Network gizarte sarea (www.basqueglobalnetwork.eus), kanpoko euskaldunen bilgunea izateko sortu baita. Animatu nahi zaituztet ekimen horrekin bat egin dezazuen, eta uste osoa dut gure ondoan izango zaituztegunela aurrerantzean ere Euskadi munduan ezagutarazteko ahalegin liluragarrian.

Gabonak gertu ditugunez, nire besarkadarik estuena helarazi nahi dizuet Euskaditik bertatik, eta onena opa dizuet 2017. urte berrirako zuen senitarteko guztientzat.

Eguberri jai zoriontsuak eta Urte berri on!

Iñigo Urkullu Renteria